

ELKARRI MOKOKA: Pello Azpirotz eta Mikel Hernandorena **Nor da nor?:** Argazki zaharrak

ELKARRIZKETA NAGUSIA: Koldo Etxabe **KUXKUXEAN:** Apirileko zorion agurrak

Ikusi
hemen
Mailope



issuu.com/mailopealdizkaria

Lyme, akainek transmititutako gaixotasuna

Aitor Irastortza (Azpirotz)
Bertso berriak
Mailoperi jarriak



Lyme eta koinfekzioei, "gaixotasun ikustezin" ere deitzen zaie. Akainek transmititutako bakteriek sortzen dute. Betelun bizi den Koldo Etxaberekin izan gara, bi hilabete daramatza tratamenduan.



Oñazea

Min bizie, bizie min.

Miñe izangoa, arnasa bezalaxe, norbeak damakin zea baka-
rrenetakoa. Zaurie azalean, zaurie erraietan; zaurie agerin,
zaurie ixilean; miñe haundie o min ttikie. Baño nola neurtu
leike miñe? Zeñek jakin besteak sentitzeon min hoi zertaaño
den haundie, ttikie o kontu hutse. Pupue, miñe eta oñazea,
sufrirentuen hiru eskalle mallek.

Pupu hartu omen do umeak behatzean. Lau laztan goxo, 'Non
da miñe, han da miñe, fuera miñe' esanez muxutxoat eman
eta papo pupu. Non ote zen, ordun, pupu, behatzean o bi-
hotzean?

Azkeneko piparra miñe tokatzen denean ee, miñe. Ahozapore
txarra; laun batek bizkarra emateizonean geatzen dena beza-
lakoxekoa. Alue da geo, piparmiñe!

- 2 -

Herrimin, maitemin, bihotz-min...baño zenbat aurpei ditto ba
miñek?

Minbizie ondotik ikustea, sumatzea tokatu zaigun hontan ikusi
dazkiu begik miñei're. Minbizie erraietatik beittureaño zaalduz,
huntzek paitea jateon bezalaxe, ta halai ezetz, ez dela min bizie,
orratzakin txulatzeanean sentitzeana bezalakoa: "Halako min
torpeat, min pixuet". Min bizi hue seittun paaste omen da siki-
ra, "hau beti hemen dau, baño tira, oñazeik ez bintzet".

Eta ordun noiz bihurtzea miñe oñaze? Beitture lausotu, hitzek
itto eta irriparra okertzeaño estutze bau huntzek, eta halai
oñazeik ez...noiz bihurtzea miñe oñaze?

Arime hausita daunean; bihotzeko koapilloak arnasik hartzen
uzte eztuenean; bizi berri bat emateko aizkoak trunkoa pit-



zateon bezalaxe gorputze etetea dienean; erditzea. Emaku-
mea izan zen iñondik ee jaiotzeai 'erditze' izena jarri ziona.

Hitz guztik due been zentzue, ta oso agerikoa hoitatik askok.
Gutxi asko, denok sentituu miñe. Baño errepetue zor oñazeai,
bai hitzei eta baita sortzeonai re, hortaz, miñetik kokkaat gora
in eta oñazeaño oaingoan; meezio bere lekue. Gaur dena da
min, nahiz eta zauriik ezkutukonak, munduen begitan ageri
ezteenak, sortzen duen sarri oñaze. Non jarri, ordea, muga?

Min ttiki guztik loak eamate omen ditto, hala eakutsi zeen.
Gau joan da gau e etorri, ilargi amandreak ezto min hau
eamatean; ezta hain ttikie nobaitt, ezta oñazetik aparte
nonbaitt; hortxe jarrikot nik muharrie.

Badie goora eta goora huntze; joangoa miñe, joan bizie.

Min bizie, bizie min.

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin
eta bertan eskuz egindako madalenak,
erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

ekin
rotulación
948 85 32 79

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

**aitz
berri**

edertasun
zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

04> Iritzia

08> Luze: Koldo Nuñez



16 > Hondakin organikoen kudeaketa

Lekunberriko Udalak, Mendialdea Mankomunitatearekin elkarlanean hondakin organikoen kudeaketarako egitasmo berria jarri du martxan. Hiru gune berri daude auzo konposta egiteko.

20> Kultura

22> Erreportajetxo: Miguel Etxarriri "Txapel" omenaldia.



26 > Mendialdeko GED

1.423 sinadura bildu ditu Mendialdeko Gure Esku Dago. Bi hilabete-tan helburua bikoiztea lortu dute ekimeneko kideek. Ekainaren 18an izanen da herri-galdeketa eta dagoeneko galdera zein izanen den aztertzen hasiak dira.



28 > Andoni Ayerdi

Fisioterapia ikasi zuen Andoni Ayerdik eta orain Lekunberri fisioterapia zentroa ireki berri du. Gainera, Beti Kozkor Klubeko fisioterapeuta ere bada eta astean hirutan eskaintzen ditu bere zerbitzuak Amma Betelu egoitzan.

30> Kuxkuxean: Apirileko zorion agurrak

31> Kontu txikiak: Agenda eta Merkatu txikia

Juanagorri

Juanagorrik harririk harrira egiten zuen jauzika, eta hurriz makila pertikatzen harturik ziztuan jaisten zen Artubitik Unako Putzurantz.

Topatuko zuen han, ziurrenik ere, San Migelgo ermitarako bi-dean zen baten bat.

Urte batzuk joan ziren mendian bizitza erabaki zuenetik.

Nahikoa zuen naturaren eta arbasoen mintzoarekin. Juanagorri bakarrik bizi zen Aralarren; nahiago baitzuen hango biztanleen siltasuna, beterriko biztanleen kalaka ahobero hutsala baino.

Inori erraten ez ziolarik, Juanagorri Mari eta Basajaunekin aritzen zen hizketan; hodeiekin eta ekaitzarekin; animaliekin eta zuhaitzekin. Bai baitzekien naturari entzun eta hura ulertzen. Izaki bizidun orok badu arima, hala uste zuen Juanagorrik, eta aditzen jakinez gero, ulertuko duzu haren hizkuntza.

Berak mendiko bizitzaz deus kontatzen ez bazuen ere, harra-patzen zuen tarteka-marteka mendizalaren bat, zirenak eta ez zirenak galdetzeko. Beti zen eskertzekoa beterriko jauntxoek egingo zuten hurrengo ergelkeriaren berri izatea.

Horregatixe zihoan ermitarantz egun horretan; erromeria eguna baitzen usadioen menpe zeudenentzat.

Eta halaxe topatu zuen Migel Agirre, Araizko ahuntzain sonatua. Bera izan zen menditik belarra jaisteko kable demonio haiek paratu zituen lehena.

Aurrerabide industrial handia, erran zuten. Eta orduantxe Juanagorrik mendira egitea erabaki zuen.

Egia errateko, Juanagorrik ez zuen deus industriaren aurka, lagungarri eta probetxuzko zen artean; baina Ameriketara egingako bidetan ederki asko ikusi izan zuen industria beti zela lukurreriari, diru-goseari lotua.

Ze berri? Galdetu zion Juanagorrik.

Eta Agirrek kontatu zion Antsonagoikoa bertan kiskaltzeko zorian izan zela; suak hartu zuela belar-fardo bat, eta horrek sute bat eragin zuelako.

Suak erreta, belar-fardoari eusten zion soka eten eta kablean behera abiatu zen; bide erdian, Antsonagoikoatik gertu, basora eroriaz. Ilunabarra sartzearekin batera kablea ezkataturik zen, eta ikusten zen guztia suzko bola bat zen, airean. Ikusi zutenek Mari ikusi zutela erran zuten, eta hura zela sutearen erantzule.

Hori esatearekin batera Agirrek barre-algaraka gehitu zuen harrigarria iruditzen zitzaiola inork Mariren izatean berean sinets ezakeenik ere.

Juanagorrik entzun soilik egiten bazuen ere, halako ezjakintasunak eragin zion tristuraren aurrean ezin izan zion eutsi, eta egia zela egin zion arrapostu; Mari izan omen zen abisu eman zuena.

Mari ez zen ahate-oindun emakume bat. Mari suaren eta uraren izate bera zen. Bi espiritu horien agerpena zen, etengabe eraldatuaz eta aldi oro berronkatuaz.

Belar-fardoak egun osoa ematen duenean eguzkipean lehortzen, eta norbaitek, axolagabekeria hutsez, botila hutsa gainean uzten duenean, naturalena da belarra suak hartzea.

Niretzat, hori, argi eta garbi da Mariren ohartarazpena, naturala eta artifiziala direnak nahasteak dakarren arriskua erakutsiaz.

Aita Santuetan eta elizetan sinesten jarrai dezakezu. Baita ermitara gurutzera igotzearen truke zeruan jasoko zaituzten jainkoetan ere; baina nik diotsut naturari entzun eta haren bi-deari ekiten diozularik, dagoeneko bizi zarela zeruan.

Agirre bizkorra zen ikasteko eta egun hartatik aurrera beti begiratu zion zeruari etxetik irten orduko.

Arribeko Angeliko Jauregi Martinikorena joan den martxoaren 10ean hil zen 73 urte zituela.

**ESKERRIK ASKO MAILOPE!!!!
MUXU HANDI BAT ATTUNA!!!**

Sei hilabete luze eta gogorren ondoren, martxoaren 10an asko asko maite izan dugun eta beti maitatuko dugun pertsona zoragarri bat galdu dugu, senarra, aita, laguna eta primerako attuna joan zaigu, attuna Angeliko. Baina idatzi honen nahia hilabetero-hilabetero Mailope egiten duzuen guztioi gure esker ona helaraztea da eta esan arto egon zaitezketela egiten duzuen lanarekin. Attuna Angeliko beti Mailope etxean noiz jasoko zain egoten zen, esan azkeneko alea hospitalean irakurri zuela eta sekulako ilusioa egin zio- la eraman genionean. Eskerrik asko Mailope eta segi lanean. Agur attuna, asko maite zaitugu!!!

Bidaiatzeak ikuspegia aldatzen du

Bidaiatzeak ikuspegia aldatzen duela esan ohi du gauzak bere horretan jarraitzea nahi duen askok. Egia da. Besteen artean, eskura ditugun baina debekatzen dizkiguten hainbat abantailaz ohar gaitzkeelako Europarantz begiratzearekin:

Suedian, adibidez, gurasotasun baxa 483 eguneko da: 90 guraso bakoitzeko eta besteak nahieran banatzeko. Espainian 112 egun amarentzat eta 30 aitarentzat (15 orain gutxi arte).

Herri bakoitzean bizitza daukan kostua kontutan hartuta soldatak alderatuko bagenitu, Frantzia langileari 10,36€/orduko ordaintzen zaizkiola ikusiko genuke, Espainian 4,72€ ordaintzen zaizkion bitartean.

Bi adibide baino ez dira, baina luze jarrai genezake. Euskal Herrian beste hainbat tokitan baino hobe bizi garela ezin da ukatu baina are hobeago bizitza eskura daukagun arren, eskuak lotuta daukagu. Horren adibide dira Nafarren hitza ordezkatzeko duen Parlamentuak onartutako 17 legeren aurka –etxebizitza legea, osasun zerbitzuen doako asistentziaren legea, etxegabeteen aurkako legea etab- Espainiako Gobernuak ezarritako hellegiteak. Hau al da berdinen arteko harremanak mantentzeko modua? Betiko inposaketa al da saldu nahi duguten demokrazia berria?

Espainiako Gobernuak daukan zorra dela-eta, Nafarroak duela 7 urte ordaintzen zuenaren ia bikoitza ordaindu beharko du: 130 milioi inguru eta hori gutxi balitz, beste 93 milioi eskatzen dizkigute Hitzarmen Ekonomikoaren harira. Odoluste ekonomiko bat.

Uztarrria jantzi digute ohartu gabe baina bada Euskal Herriari zabaltzen ari zaion aukera leihorri berri bat: Erresuma Batuak Europako Ekonomia Erkidegoa utzi du herri galdeketa bat egin eta gero, Eskoziarrak bigarren galdeketa baterako prestatzen dabilta independentziaren bidean, Irlandak ere aurrera pauso bat emango du laster eta Katalunia badoa.

Euskal Herria euskaldunok nahi duguna izan behar du eta guk argi daukagu:

Ekainaren 18an, bai askatasunari. Bai independentziari.

Joandakoak Gogoan

"Zuhaitz bezala lurrean, kantuak bezala haizean..."

AMAREN URTEURRENA

Urtebete da dagoeneko joan zinenetik, martxoaren 13 honetan, baina hala ere, oraindik atsegin handiz gogoratzen zaitut (zaitugu):

Mikak beren habiak egiteko hegan pasatzen zirenean, mokoan adartxo bat zeramatela:

-Begira, begira! Mika hori orain ere bazoak habia egitera! -esaten zenidan.

Eta beste horrenbeste, aurreko etxeko, laugarren solairuko balkoiko txaturra ikusten genuenean:

-Gaur ere hor zegok, ba, txakur txiki zorritsu hori! -aipatzen zenuen.

Berdin, Aimar Olaizolaren pilota partiduak ikusten genituen ere:

-Begira, begira, Aimarrek nola altxatzen duen sudurra, tantoa galtzen duenean!; astakiloa ematen dik -botatzen zenidan, barrez-. Irabazi, irabazi ezak, Aimar! -jarraitzen zenuen.

Edota, Oinatz Bengoetxea frontoian jokatzeko ikustean:

-Hara, hor ari duk berriz ere abarkadun txikia! -komentatzen zenidan.

Halaber, Juan Miguel Etxarri Mitxaus ordenagailuan kantatzen entzuten genuenean:

-A zer ahots ozena/orroa daukan Juan Miguelek, e! Berak bakarrik eliza osoa betetzen dik -zehazten zenidan.

Era berean, Euskal Telebistako eguraldiaren informazioa ematen zutenean:

-Ondoréngo! -jartzen zenuen azentua. Eta geroxeago-, zer esan nahi du ondoréngok? -galdetzen zenigun sarritan, batiere maltzurkeriarik gabe.

Gauza bera, ETB1eko eguraldiko iragarkian agertzen zen neska artzaina ikustean:

-Horratx! Hor zegok berriro ere neskatxa artzaina! -xuxurlatzen zenuen.

Eta Eguberriak baino askoz ere lehenago, aurreko etxe bateko, goiko balkoi batean, Bizarzuri ikusten dudanean, behin eta berriz galdetzen zenidana, etortzen zait burura: -Zer arraiotarako jarriko ote dute hain goiz txotxongilo hori hor? Demonio ergelak!

Orobat, gure etxe ondoko hanburgertegian, mahaiak eta aulkiak espaloian jarrita ikustean, esan ohi zenuena gogoratzen dut sarritan:

-Zertarako aterako ote dute aulkiteria hori, eguraldi kaxkar honekin? Jendea zoratuta zegok!

Pagazin, hau da, Aurizko etxean nagoenean, eta behin ere eza-gutu ez zenuena, honako hauxe esaten zenidalako, nahigabez:

-Ai, motel! Sentitzen diat, baina ez diat haraino joateko gogorik! Hobeki nagok hemen, lasai-lasai!

Eta, Iturramako etxetik atera behar dudanean ere, behin baino gehiagotan etortzen zait gogora, nola, atsekabez, esaten zenidan:

-Ai, seme! Berriz ere bakar-bakarrik utzi behar al nauk!

Berebat, aurreko etxeko bigarren solairuan, ustez hutsik gelditu zen etxebizitza bat ikustean, oso maiz, honako hauxe galdetzen zenuen:

-Noiz arraio alokatu behar dute, ba, etxe hori?

Ni etxera itzultzean, hauxe esaten zenidan behin baino gehiagotan:

-Hemen hago, hemen, Xantiko?

Elurra oso gustukoa zenuen, eta egiten ikusten zenuenean:

-Egin, egin dezala lasai! Nahiago nuke metro bat botako balu! -Eta atertzen zutenean-: hau pena! Zer gutxi jarri duen! Ezinezkoa da, hemen idaztea burura etortzen zaizkigun oroitzen guztiak, beraz, lekukotasun txiki honek balio dezala, ikus dezazun beti zaitugula gogoan. Musu handi bat.

Xanti Begiristain Madotz, Iruñea.

- 5 -

Bidali zure heriotz-agurra mailope@labrit.net e-postara edo dei ezazu 638 652 339 telefono zenbakira eta agurtu itzazu zendatutakoak aldizkariaren bitartez. (Dohako zerbitzua).



ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com



BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

Bertso berriak.

Mailoperi jarriak

Aitor Irastortza (Azpirotz)



*Eskuetan al dugu
guk etorkizuna?
Hala balitz nahiago
genuke laguna...
Orainean sendoa
badugu jarduna
lortuko dugu denok
desio duguna.*

*Erronkak gainditzea
denez pozgarria,
ekainean beste bat
daukagu jarria
herriak hauta dezan
bere oinarria.
Ea asetzen dugun
gure egarria!*

Ioseba Goikoetxeari puntua: _____

Gazteontzat garesti
da etxebizitza.

Oinak: _____

albora, inora, denbora, gora.



Doinua: "Orain hasi bihagu"

- 6 -



JAIOPERIENTZAKO OLAGARROAK

Jaioperientzako kakorretaz egin-dako olagarro solidarioen tailerra egingo dute apirilaren 2an eta 19an Beteluko Zigari elkarteak.



SATORZULOKO FRONTENIS TXAPELKETA


18 bikotek parte hartu zuten aurtengo Satorzuloko IV. Frontenis Txapelketan. Tolosako Xabierrek eta Pitillasko Jose Angelek osatutako bikoteak irabazi zuten finala.



SINADURA BILKETA

Akelarre Kultur Elkarteak 2017ko Vianako Printzearen Saria *Berri Txarrak* taldeari emateko eskaera aurkeztuko dio Nafarroako Kultur Kontseiluari. Dagoeneko sinadurak biltzen hasiak dira, eman zure babesa www.change.org atariaren bitartez.

Arrazismoa futbolean



Mikel Hernandez

Kaixo Pello!! Zer moduz? Gaurkoan azken hilabete honetan futbolean zeresan handia ematen ari den gai batekin nator: arrazismoa eta xenofobia. Izan ere, berez "aurrera" goazen gizarte honetan, oraindik ere esklabotasunaren garaian gaudela dirudi, gai jakin batzuetan behintzat. Eta genero berdintasunean edota guztiontzako eskubide berdintasunean oraindik egiteko asko dagoen heinean, arrazismoa eta xenofobia errotik kendu beharreko arazoak dira, ez soilik kirolean, baizik eta gizarte osoan, oraindik ere intolerante asko baitago.

"Partidura joaten direnentzat araudi zorrotzagoa jarri beharko litzateke"


Duela hilabete bat Beti Kozkorreko Autonomikako taldeko Romeo aurrelaria izan zen aurkarien taldeko jarraitzaile batzuen ahotik irain mingarriak jaso zituen. Epaileak partiduko aktan Romeok jasandako irainak zehaztu zituen. Nik nire buruari galdezen diot behin baino gehiagotan iraina argumentu bakartzat duen jende horrek zer izango ote duen buruan. Eta okerrera honakoa da: futbolak edozer gauza egiteko eskubidea ematen duela pentsatzen dela askotan. Eta hori ez da horrela, ezta gutxiago ere.

Bigarren kasua hilabete honetan gertatu zen kategoria berdineko Cabanillas-Ablitense partiduan. Jatorri marokoarra zuen gazte batek, marrazain gisa zegoena, harmailetatik irainak jasan zituen, eta hori bakarrik ez, baizik eta irainak bota zituen gizon horrek baloi bat jaurti zion intentzio txar guztiarekin. Harmailetan zegoen jendeak gizona identifikatu eta Foruzaingoari deitu zioten gertatutakoa esateko eta foruzainek erasotzailea identifikatzen zuten. Linierrak salaketa bat jartzea erabaki zuten.

Bi kasu hauek hilabete bateko denboran gertatu dira, eta dagoeneko Nafarroako Futbol Federazioa neurriak hartzen ari da, baina nire ustez futbol partidura joaten diren guztientzat nolabaiteko araudi zorrotzagoa jarri beharko litzateke, nire ustez. Horrelako jendea futbol zelaietatik edota beste kirol ekintza batzuetatik kaleratu beharko litzateke. Tamalez, arazo honen jatorria ez da oso gertukoa, baizik eta oso atzetik dator. Zer egin dezakegu horrelako minbizi hau errotik kentzeko Pello? Eta bide batez honakoa baieztatzen dut: aski da!!!



lepa Mikel, lanpetuta nabil Aste Santua delakoa noiz iritsiko zain. Ba bai azkenaldi honetan arrazistak eta xenofoboak diren ekintza edo jarrera ugari agertu dira komunikabideetan, baina ez soilik futbolari dagokionean bakarrik beste hainbat eremutan ere agertu dira. Hauen adibide entzutetsu ugari daude: EEUU-ek eta Britainia Handiak orain dela egun gutxi onartu dute soilik 6-8 herrialdeetako (Afrika eta Ekialde Hurbilekoak hauek guztiak) hegazkin bidaiariek ezingo dituztela telefono mugikorrek ez diren gailu elektronikoak gainean eraman hegazkinean daudenean. Holandako



Pello Azpirotz

"Arrazismoarekin bukatzeko enpatia landu gehiago landu beharko genuke"

hauteskundeetan ultraeskuinak indar handia lortu du eta Frantziako hauteskundeetan bozka asko lortuko dituztela diote inkestek. Errefuxiatuen aferak eta European urte hauetan hartu diren erabaki oker askok uste dut eragin zuzena izan dutela ultraeskuinaren gorakada honetan. EEUU-n etengabekoak dira iristen diren bideoak non poliziak azal beltzeko armarik gabeko mutilak hiltzen dituen gupidarik gabe. Arrazismoarekin bukatzeko desagerrarazi egin behar ditugu gure inguruan dauden aurreiritzi eta jarrera mota hauek, horretarako maila pertsonalari edo indibidualari

dagokionez "enpatia" landu beharko genuke gehiago. Hezkuntzak etengabe bultzatu beharko luke balio honen (enpatiarena) erabilera. Hau da, besteren lekuan jartzen ikastea, pentsatuz zer sentituko genuen beste horren tokian egongo bagina. Jarrera eta balio arrazista-xenofoboak aldatu behar dira, jakinik gaur egungo mundu globalizatu honetan gizarteak geroz eta interkulturalagoak direla eta izango direla. Denok gara desberdinak, gizakion aniztasun hau aberasgarria da.

Gure jaioterriagatik, azalaren koloreagatik... maila desberdinetan gaudela sinestea edota bestea gutxiesteko ezaugarri horiek erabiltzea ez da inondik inora onargarria. Besteren lekuan jartzeko gaitasuna denok garatzea eta erabiltzea ezinbestekotzat jotzen ditut jarrera eta aurreiritzi desagoki hauei buelta emateko. Hurrengo arte, aio!



Koldo Nuñez-Betelu

LUZE

Bikotean, zoriontsu ala sufritzen?



- 8 -

Bikote harremanak zorionekoak ala zorigaitzokoak izan daitezke, bizipenen arabera. Jakina, bikote harreman batean sartzen garenean, lehenengoa espero dugu, alegia, harremana ona izatea. Gero etortzen dira arazoak. Beti izan behar du horrela? Hasieran gozoa, ondoren gazia? Horrela gertatzen bada, zergatik da?

Has gaitzen, lehenengoz definitzen bikote harremanak. Hitz gutxitan, bi pertsona helduen arteko harreman finkatua. Helduak esan nahi du elkarrekiko menpekotasunik gabe eta arduratsuak. Bi baldintza hauek oso garrantzitsuak dira bikote harremana heldua eta osasuntsua izateko. Arduratsu idatzi dut. Izan ere, nik esandakoak, nire pentsamenduak, nire sentimenduak eta nire ekintzak, guzti guztiak, nire ardua dira. Pertsona heldua bezala ezin diot horietako bakar bat ere inori leporatu, nireak dira eta, hortik, bizi dut nire bizia.

Eta bikote harreman batean, oro har, maitasun sentimendua eta erakarpen fisikoa dira nagusi hasieran. Horrela, maiteminduta sentitzen garela oharitzen gara, norbaitekin maiteminduta. Eta hortik abia daiteke bikote harremana. Baina zein dira harreman mota

“Ez dezagun pentsa maitasuna egonda, edozein gauzak balio dezakeenik”

honen hiru zutabe nagusiak? Lehenengoa, kidetasuna, hau da, lagunak gara. Bion artean konplizitatea dago, gustu batzuk konpartitzen ditugu eta gozatzeko momentuak dauzkagu. Bigarrena, sexua eta erotismoa, gutxienez muxu eta laztan goxoak sarritan, kontaktu fisikoa erabat beharrezkoa baita. Eta hirugarrena, bizi proiektua. Elkarrekin bagaude, zerbaiterako da. Maiz, umeak mundura ekartzea da proiektua. Baina beste proiektu batzuk ere posible dira, bion artean aurrera eramateko. Horregatik umeak nagusitzen direnean, segi dezake gure bikoteak zentzurik izaten.

Aipatu ditudan hiru zutabeak, hirurak, dira beharrezko harremana sendo eta osasuntsua izateko. Hauei gehitu behar dizkiegu bi baldintza: elkarrekiko errespetu osoa eta hartu-emanaren orekatua izatea. Errespetua, jakina, ezin da inolaz galdu. Hitzezkoa eta ekintzetakoa, osoa. Hartu eta ematen duguna

ere orekatua izan behar da. Zalantzarik gabe, batek besteak baino gehiago jartzen bada, desoreka sortuko da. Honek bere esanahia du, esaterako, biok egiten dituzten lanetan. Esaterako, etxeko lanak konpartitzea beharrezkoa izango da biek lana kanpoan egiten dutenean, edo bat etxean geratu bada umeak zaintzeko eta bestea langabezian dagoenean edo, desoreka dagoen kasu guztietan. Inor ez da inor baino gehiago eta bion ekarpena da beharrezko harreman osasuntsua aurrera eramateko.

Beraz, bikote harremanaren formula hau da: bi helduren arteko maitasun sentimendua, hiru zutabe (kidetasuna, harreman sexualak eta bizi-proiektua) eta bi baldintza (errespetua eta hartu-emanaren orekatua). Beraz, bi helduek maitemindu eta konpromisoa hartzen dute hiru zutabeak eta bi baldintzak betetzeko. Jakina, oso lagungarria izango da konpromiso hau, noizean behin biok batera aztertzea eta berritzea. Aipatu ditudan faktore guztiak beharrezkoak dira. Eta ez dezagun pentsa maitasuna egonda, edozein gauzak balio dezakeenik. Hau akats potoloa izan daiteke. Maitasunak ezin du guztiarekin.

Bukatzeko, bikote harremana ez da zertan bizi osorako izan behar, maitasuna buka daiteke eta. Orduan, amaitutzat eman dezakegu gure harremana eta berriro, askatasunean, beste harreman baterako prestatu ala bakardadea bizi. Saiatzen bagara maitasun gabeko edo aurrerago idatzi ditudan zutabe edo baldintzetako bat edo gehiagorik gabe, bikote harremana bizitzen, sufrimendua etorriko da. Hau gertatzen bada, biok bakarrik ezin baduzu egoera zuzendu, profesional bati laguntza eskatzea izango da beharrezko, gutxienez sufrimenduarekin bukatzeko, eta, ahal bada, harremana aurrera ateratzeko edo behar bezala bukatzeko.



Zer da ezkerra?

Kaixo irakurleok, Jokin nauzue Mailope aldizkariko atal honetan noizean behin idatziko duen pertsona. Aurkezpen txiki bat egitea ongi etorriko dela uste dut mamian sartu baino lehen. Esan bezala, Jokin dut izena, eta sortzez gipuzkoarra naizen arren, hamahiru urte baino gehiago daramatzat Lekunberrin bizitzen. Hemeretzi urte ditut eta Politika Zientzietako Gradua ikasten ari naiz Leioako Unibertsitatean. Espazio honetan kezkatzen nauten gaiak jorratuko ditut batik bat. Gehien bat politikako gaiak izango direla aitortuko dizuet, baina modu simple eta pedagogikoan azaltzen saiatuko naiz. «Politika» hitza irakurtzean, batzuetan pentsatzen dugu testu apokaliptiko eta ulertezina izango dela, nire kasuan aldiz, ez da horrela izango, beti jendearen pentsamendu kritikoa bultzatzeko asmoarekin. Goazen ba!

Galdera konplexua izenburuan idatzita dagoena. Egia esan, gaur egun ez dakit “ezkerra” hitzak esanahi zentzudun bat duen edo eztabaida sortzeko bakarrik erabiltzen den hitza den. Izan ere, gaur egungo pop-politikan oso errez etiketatzen zaio jendeari ezkertiar bezala, ezkertiar hitzaren esanahia anitza eta zabala denez, ez naiz eztabaida horretan sartuko. Bakarrik nire ustez “ezker-rrak” nolakoa izan beharko duen azalduko dizuet, bost puntu ezberdinetan banatuta:

Lehenengo ideiak iraganean du isla. Berdintasunean, elkartasunean eta askatasunean oinarritzen den langileen borrokan -noski, guzti hau etekin pribatuaren eta kapitalaren kontra-. Ezkertiarrek antikapitalistak izateaz harro ez badaude, sentitzen dut baina beraien identitatea ezerezean gelditzen da.

Bigarrenak, helburu nagusitzat edukitzea: emakumeen, hegaldako biztan-



“Kontuan eduki behar dugu suntsitu nahi dugun sistemaren parte garela”

leen eta etorkizuneko belaunaldien eskubideak aldarrikatzea da. Horiek dira ordaindu behar ditugun zor garrantzitsuenak eta legitimoenak.

Hirugarrenak, behetik antolatutako autogestioaren, demokraziaren eta ekintza zuzenaren defentsa tinkoa argi eduki behar du. Gaur egun argi ikusten da demokrazia ordezkatzailiek interes pribatuentzako lan egiten dutela. Langilea honetaz konturatu behar da eta alternatiba baten sinesten hasi behar du.

Laugarrenari dagokionez, kontuan eduki behar dugu suntsitu nahi dugun sistemaren parte garela. Gure eguneroko bizitzan kontraesan ugari daudela

kontzientziatu behar gara. Ez baditugu kontraesan horiek onartzen, gaizki joango zaigu.

Bosgarrena eta azkena, kapitalismoa bere azken fase auto-suntsitzailan sartu dela eta krisi ekologikoarekin batera, kolapsoa oso gertu dagoela geureganatu beharko genukeela dio. Honenbestez, lehenbailehen atera behar gara sistema honetatik. Alternatibak eraikitzeke premia dago, non, espazio autonomo autogestionatuak eta desmerkantilizatuak sortu beharko diren bai ala bai.

Hurrengo bost puntuekin ez dut “ezkertiarren biblia” bat egin nahi, ezta gutxiago ere. Jendearen kontzientzia zabaltea du helburu. Testu hau irakurtzean guztiok geure buruari galdetzea ea benetan ezkertiarrek garen eta zer suposatzen duen ezkertiar izateak. Hala ere, azken puntuan sakontzea beharrezkoa iruditzen zait, baina hurrengo batean izan beharko da. Ondo izan!

“Geroz eta gehiago dira Lyme gaixotasuna transmititzen duten akainak”

- 10 -



Koldo Etxabe tolosarra da, baina urteak daramatza Betelun bizitzen. Betidanik izan du mendira joatea gustoko eta erretiratu dagoenetik maiz joaten da. Mendira joateak on egiten dion arren, buruhaustek ere sortzen dizkio. Orain dela bi hilabete Lyme gaixotasuna diagnostikatu zioten, akainek transmititutako gaixotasuna da, min artikularrak, indar falta eta arnasa hartzeko zailtasunak eragiten dizkiona. Nahiko ezezaguna izan arren, uste baino hedatuagoa dago.

Lyme izena duen gaixotasuna diagnostikatu berri dizute Koldo... Zer da zehazki Lyme gaixotasuna?

Akainak transmititzen dituzten bakteriak asko dira eta bakteria bakoitzak gaixotasun bat sortzen du, ezagunena Lyme izeneko gaixotasuna da. Estatu Batuetan aurkitu zuten orain dela 30 bat urte. Lyme izena duen hiri batean ikusi zuten jende asko gaizki zegoela, min articularrekin eta porru eginda, eta analisiak egin eta ez zuten aurkitzen zergatia, eta orduan konturatu ziren akaina asko zeudela hirian bertan, lorategietan

etab. eta horrela konturatu ziren hortik zetorrela. Gaur egun Europako iparraldean bati bat oso hedatuk daude gaixotasuna transmititzen duten akainak, badirudi hotzarekin hobeto konpontzen direla.

Eta zu noiz gaixotu zinen?

Nik hamabost bat urte damazkit, mendia juten nintzen bakoitzean gorputzean akainak ekartzen hasi nintzela.

Beti izan al duzu zuk mendira joateko zaletasuna?

Bai, nire gurasoak, biak ere, baserritarrak ziren, atta Zaldibikoa eta ama Belauntzakoa. Eta txikitan udara pasatzea eta oporretan attan baserria juten giñan eta gero familian ere beti izan dugu mendia juteko joera. Eta due-la hamabost bat urte, ohitura bezala hartu nuen egun pasa mendira joatea, normalean anai batekin. Eta badira hamabi edo hamahiru urte hasi nintzela akainak ekartzen. Hasieran ez diozu garrantzirik ematen. 2007an, batek hozka in zian eta horrelako orban gorri bat atera zitzaidan. Medikarengana joan nintzen eta ez zion garrantzirik eman eta mendira joaten jarraitu nuen eta joaten nintzen aldiro baita ekainak hartzen ere.

Horrek ere susmoa piztuko zizun ba ezta?

Bai, bai, harrigarria da gaur egun anaia-rekin mendira juten jarraitzen det eta berak sekula ez du ekarri bakar bat eta nik ia aldiro. 2012an beste batek hozka egin zidan eta orduan orban gorri handi bat atera zitzaidan. Interneten begira hasi nintzen, eta infekzioetan aditua zen mediku batengana joan nintzen, astebetean antibiotikoak hartzen ibili nintzen eta kitto!

Baina zenbat egunez egon zinen orban horrekin?

Astebete edo hamar egun. Baina due-la lau hilabete egun batean porru eginda jeiki nintzen, inolako indarririk gabe, oinez ibiltzeko gai ere ez nintzela eta medikuarengana joan nintzen eta azaldu nion akainen hozkarekin erlazonatutako zerbait izan zitekeenaren susmoa nuela. Medikua analisi pila bat egin zizkidan beste aukera batzuk baztertzeko eta dena ondo zegoela. Baina orduan etorri zitzaidan burura 2015ean Gipuzkoako egunkari batean azalduetako erreportaje bat non



Akain batzuk oso txikiak dira eta askotan luparen laguntza beharrezkoa da.

“2012ko hozka hartan hartu nuen gaixotasuna”

hiru pertsonak akainek transmititutako gaixotasunaz hitz egiten zuten. Internetetik, hemerrotekatik, artikulua atea nuen eta egunkari horren delegazio batetara joan nintzen eta erreportajea egin zuen kazetariarekin harremanetan jarri nintzen elkarrizketatuetako baten kontaktua lortzeko.

Eta berarekin harremanetan jarri zinen...

Bai. Irungo neska bat zen eta lehenengo aldiz berarekin egon nintzen bere historia kontatu zidan eta esan zidan nik ere ziur hori izanen nuela, bere kasua oso antzekoa zelako. Nahiz eta badiren pertsonak gaixotasun hau dutenak eta euren bizitza osoan akain bat bakarri izan dutenak.

Neska honek 2007an Pirinioetan akain bat harrapatu zuen eta medikuarengana joan zen astebete antibiotikoak hartzen ibili zen eta pasa zitzaion. Gero, 2010ean, haurdun geratu zen eta oso gaizki jartzen hasi zen eta lau urte eman zituen medikutik medikura zer ote zuen argitzen ez ziotela. Horietako batek

buruko arazoren izango zuela ere esan zion.

Zeintzuk ziren berak zituen sintomak?

Nekea, min artikularrak, memoria galdu, bista ere galtzen hasi zen... Taktikiak eta arnasa hartzeko zailtasunak ere sor ditzake. Ezgaitu egiten zaituen gaixotasun bat da, batzuetan oso inkapazitantea izan liteke. Gaur egun estatu espainiar osoan eta Frantzian akainek transmititutako gaixotasunak diagnostikatzeko egiten diren analisisiek ez dute balio, ia beti negatibo ematen dutelako. Horregatik, lehen pausua analisisia leku fidagarri batean egitea izan zen, Alemanian. Nik ez nuen har-raino joan beharrik izan, odol poteak bidali nituen hemendik.

Zentro pribatu baten bitartez?

Bai, laborategi baten bitartez, hiru mila euro patuta! Eta analisisak gauza batzuk positibo eman zizkidan eta beste gauza batzuk ez. Bakteria diferenteak transmititzen dituzte akainek eta horietako batzuek gaixotasun ezberdinak sortzen dituzte, nahiz eta denak antzekoak izan. Alemanian badira horiek tratatzeko klinikak baina aberatsa beharko nuke izan. Dena den hemen, estatu espainiarrean, hasi dira hiru edo lau mediku gai honekin lanean. Ni Madrilgo mediku batengana joan nintzen, bera bi urtez Estatu Batuetan egon da horri buruz ikasten eta orain tratamenduan nago.

elkARRIZketa:

“Akain guztiak ez dutela gaixotasuna transmititzen, denek ez dauzkate bakteria horiek”

Ze tratamendu mota da?

Antibiotikoak dira, antibaktereologikoak direnak. Nik bi hilabete baino ez daramatzat, baina bada jendea hiru urte daramana antibiotikoak hartzen eta noski gorputza zaintzeko neurri asko hartu behar dira, oso probiotiko indartsuak hartu sabela babesteko etab. Belarrak ere hartzen ari naiz desintoxikatzeko. Zeren antibiotikoek bakteriak hiltzen dituzte, baina gorputzean gelditzen dira eta toxikoak dira.

Eta zer moduz zaude orain?

Tratamenduarekin hasterakoan sintoma guztiak okerrera egiten dute, hori seinale ona da, gorputza lanean hasi denaren seinale, baina sekulako gorabeherak izaten dira. Aurreko ostegunean mendian sei orduz ibili nintzen, oso ondo nengoen eta aldiz herenegun besaulkitik ere ezin altxa. Gaizki zauden egun horietan ezin duzu ezer egin, baina bestela bizitza normala egiten dut.

Orain dela lau hilabete sintomekin hasi zinenean, orduan ere akainen batek hozka egin al zizun?

Ez, nik uste 2012ko hozka hartan hartu nuen gaixotasuna. Ni orain ohartzen naiz hozka horren ondorengo urteetan ere izan nituela zenbait sintoma baina eramangarriagoak ziren, sintoma arinagoak, agian egun bat nahiko ahul, baina gero pasa egiten zen eta gainera ez nuen horrekin identifikatzen, estresa edo izango ote zen... Baina orain dela lau hilabete sintomek okerrera egin zuten.

Eta orain hobeto zaudela nabaritzen al duzu?

Egunaren arabera, egun batzuetan hobeki nago eta beste batzuetan porru eginda. Tratamenduarekin hasi nintzenean bi egunez baso bat eskua-ekin ezin hartu egon nintzen. Baina ni nahiko baikorra naiz garaiz hartu dudalako. Beste askok urteak ematen dituz-



Koldori akainak hozka egin ondoren utzitako orban gorria

“Antibiotikoek defentsa immunologikoari eraso egiten diote”

te medikuz mediku eta horrek izugarritzako estresa sortzen du.

Eta etorkizunean antibiotikoak hartzen jarraitu beharko duzu?

Ikusi egin behar. Hemendik hamabost egunera daukat hurrengo kontsulta Madrilen. Atsedean ere eman behar zaio gorputzari, babesteko defentsak hartu arren antibiotikoek sistema immunologikoari eraso egiten diote, defentsei eragiten diete. Nik defentsako oraingoz behintzat oso ondo dauzkat. Esaten dute urte batzuetan antibiotikoak hartuz posible dela guztiz sendatzea, eta gainera tratamendu naturalagoekin gaixotasunari aurrera egiten ez uzteko tratamendu alternatiboak bilatzen dabiltza.

Lyme gaixotasuna bestelako gaixotasunen diagnostiko okerrarekin nahastu izan da askotan...

Bai. *Fibromialgia* eta *Sindrome de fa-*

*tiga crónica*ekin nahasten da askotan, nahiko sintomatologia berdintsua izaten da. Eta medikuak ohartzen hasi dira duela urte batzuk fibromialgiaren diagnostikatutako jendea badela tratamenduarekin ere hobetzen ez zuela eta errealitatean *Lyme* gaixotasuna zuela. “Gaixotasun ikustezina” legez ezagutzen da. Izan ere, sintomatologia oso ezberdina eragiten ditu: sukarra, gripeak dituen sintomak, hantura eta oinaze artikularrak, giharretakoak, buru nahasketak, kontzentrazio arazoak, ahanztura nabarmenak, hitz egiteko zailtasunak, bapateko aldarre aldaketak, antsietatea, burukomin larria, ikusmen arazoak, entzumenaren gorabeherak, oreka arazoak, insomnia, hilekoaren irregularitasunak, botagurea, bihotzaren arazoak, arnasteko arazoak, gaueko izerditze ez ohikoak...

Gipuzkoan gaixotasun hori duten pertsonen talde batekin harremanetan zaude...

Bai, Nafarroan oraindik ez det gaixotasuna duen inor ezagutzen. Hemengo pertsona batek aipatu zidan bere senarraren anaia batek antzeko zerbait izan zuela, gurpildun aulkian gelditu zela baina urtebeteren buruan tratamenduarekin sendatu zela. Baina ez dakit zehazki hori izan ote zuen.

Gipuzkoan bada talde bat, Irun eta Hondarrabia inguruan zortzi edo hamar pertsona daude gaixotasuna dutenak, denak gazteak dira, 30 eta 40 urte bitartekoak, eta gehienak emakumezkoak.



Gaixotasunak oreinetan omen du jatorria, baina orkatzetara ere zabaldurik dago jada.

Batzuk Belgikara joaten dira tratamendua egitera. Talde horretan badira ere gaixotasuna euren seme-alabek duten bi edo hiru emakume.

Jendeari zure gaixotasunaren berri ematen diozunean...

Harrituta! Baina argi gelditu behar da akain guztiek ez dutela gaixotasuna transmititzen, denek ez daukate bakteriarioriek.

Hala ere ez diozu mendira joateari utzi...

Ez, eta ez diot utziko ere. Neurriak hartu eta tira!

Zein neurri mota hartzen dituzu?

Uxagarriak botatzen ditut mendira joan aurretik, nahiz eta ez dira oso eraginkorrak. Baina uxagarriak botatzen ditut gorputzean eta toxikoagoak diren horiek arropan. Eta beti gomendatzen da galtzerdiak galtzen barrutik eramatea eta alkandora ere galtzaren barrutik sartzea, mauka luzeak eta arropa argia, baina akaina oso-oso txikiak dira eta askotan ikustea zaila da. Mendira noanean ere saiatzan naiz pistetatik joaten,

“Gomendagarriena, pintza berezi batzuekin oso-osorik ateratzea da”

baina nahiz eta oso zabala den pista batetik joan aldamenetan larrak baldin badaude edo garoa badago, ondotik pasaz gero... Baina ez det obsesionatu nahi eta orain arte lortu det. Batzuek esaten didate: “Ez jun mendia, beste gauzak badira itteko!”. Baina niretzat mendia oso garrantzitsua da, bai fisikoki eta bai psikologikoki ere, on egiten dit.

Eta akainak nola kentzen dituzu?

Hasieran ahal den moduan kentzen nituen, batzuek olioak botatzea gomendatzen dute, beste batzuek erretzea, baina

gomendagarriena, pintza berezi batzuekin oso-osorik ateratzea da. Gorputzean burua sartu ohi dute eta burua barruan geldituz gero, edo olioak eta bestelako metodoak erabiliz gero arrisku handiagoa dago akainak bere bakteriak botatzeko. Normalean oso txikiak izaten dira eta luparen laguntza behar izaten da.

Akainei buruz hitz egin dugu baina ez dira gaixotasun horren transmisore bakarrik...

Ez. Jatorria oreinetan omen dago, eta egun jakina da bakteriarioriek orkatzek, hegazti migratzaileek, mendiko untziek eta arratoiek ere badutela. Akainen kasuan geroz eta gehiago ari dira hedatzen gaixotasuna transmititzen duten akainak. Parisen esaterako, hiriko parke publiko famatuenetan, kartelak daude irteeran, ateratzerakoan akainak gorputzean izan ditzakezula ohartaraziz. Ez nuke nahi honekin guztiarekin inor obsesionatzerik nahi, baina bere garaian niri egunkarian kaleratutako erreportaje harrek lagundu zidan moduan norbaiti lagungarria suerta dakioko honen berri izatea.

Antsoenea
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZEN

634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA
- HARATEGIA -

PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatara
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

Aliprox

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

Non dago Araizko haritzik ederrena?

Araizko Ibilira – Haritza eta Mendia 1. argazki lehiaketa antolatu du Araizko Udalak. Bailarako haritz baten edo harizti baten argazkiak bilduko ditu lehiaketak. Parte-hartzea librea izanen da eta partaide bakoitzak gehienez ere hiru argazki aurkezteko aukera izanen du. Argazkiak, originalak, argitaratu gabekoak eta beste lehiaketa batean saririk jaso ez dutenak izan beharko dira. Argazkiak egileek aurkeztu beharko dituzte.

Argazkiek formatu digitala izan beharko dute eta ondorengo ezaugarriak bete beharko dituzte: Argazki digitalak JPG formatuan, gutxienez 1024x 1024 pixel eta 300 p.p.p. (300 dpi) bereizmenarekin. Artxiobak gehienez 3Mb izan beharko ditu.

Apirilaren 15ean irekiko da parte hartzeko epea eta ekainaren 15era bitartez izanen da argazkia bidaltzeko aukera. **udala@araitz.eus** e-posta bitartez jasoko dira argazkiak. Posta elektronikoko horretan argazkia atxikitzeaz gainera argazkilariaren izen-abizenak, kontaktua, eta argazkian ateratzen den haritzaren kokalekua zehaztu beharko dira.

Saria Araizko produktuekin osatutako saskia izanen da eta lehiaketako irabazleak irailaren 10ean, Araizko Ibilira egunean jasoko du. Bestalde, lehiaketan onartutako argazki guztiek, Araizko webgunean zintzilikatuko den erakusketan izanen dira ikusgai.

Informazio gehiago: **www.araitz.eus** atarian eta udaleko facebook orrialdean.



Arrakasta handia izan dute Gizarte Zerbitzuak antolatutako azken jarduerak

Hainbat jarduera antolatu ditu Zonaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak azken hilabeteotan. Joan den otsailean, sukaldaritza ikastaro bat egin zuten gaztetxoekin, aisialdien proiektuaren baitan.

60 neska-mutil inguru elkartu ziren Lekunberriko Kattagorri elkartearen eta ondoren prestatutakoarekin afari ederra egin zuten.

Bestetik, guraso, irakasle, jantokiko langile eta aisialdian haurrekin lan egiten duten begiraleei zuzendutako formazio tailer ireki bat egin zuten joan den hilean Ibarberri eskolan. Belen Pérez de Prado, Eskola Jazarpenaren Aurreko Prebentzio eta Esku-hartze Programako teknikaria da eta Bizikidetzarako Aholkularitza Zerbitzuan egiten du lan Nafarroako Hezkuntza Sailean. Berak eraso saihesteko eta behin gertatzen denean zer egin dezakegun jakiteko aholkuak eman zizkien eta gaia hiru saiotan zehar sakontasunean landu zuten.

M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

Diario Vasco eta
Diario de Navarrako
Korrespontsala

948513056
699179437

Atabal
okindegia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

BERTAKO
HARAGIA

Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako platerak.

Ettxera eramateko
zerbitzua ere eskeintzen
dizugu.

Antigua Kalea Nº7
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com

Kalaxkak Mugiroko Shell gasolindegia-aren inguruan pilatutako hondakin aurrean neurriak hartzeko eskaera egin du



Azken asteotan larraundarrok ikusi ahal izan dugu Mugiroko SHELL gasolindegia-aren inguruan dagoen zabor pila. Era guztietako hondakinak nonahi: plastikoak, latak, olioak, botilak, ... Orain arte sasiek gordetzen zutena bistan geratu da. Hondakin horiek basoa erabat kutsatu eta paisaiak kaltetu egiten dituzte, min eginez urari, lurrari, faunari eta florari. Horrez gain, haizea dabilenean, zabor horiek errepidera pasatzen dira, arriskuan jarriz A-15etik zirkulatzen dutenak.

Kalaxkak SHELL enpresari, Larraungo Udalari eta Nafarroako

Literatur solasaldia

Maiatzaren 4ean, arratsaldeko 18:00etan Harkaitz Cano idazlearekin solasaldia izanen da Mitxausenea Kultur Etxean. "Beti oporretan" liburuari burua arituko dira parte-hartzaileak. Animatu eta parte hartu!

Gobernuari, nork bere kompetentzien arabera, neurriak hartzeko eskaria egin zien idatziz. Ikusi dugu egun hauetan bazterrak garbitu direla. Baina hori ez da nahikoa. Neurriak hartu behar dira holakoak ez errepikatzeko. Nafarroako Gobernuak, lur eta partzela horien jabe denez, SHELL enpresari eskatu behar dio:

Lurrean eta mendian zehar barreiatuta dauden zakar guztiak epe labur eta zehatz batean biltzeko.

Zakarrak behar den moduan jasotzeko neurriak hartzeko, besteak beste:

Gaikako bilketa bermatzen duten behar diren zakarrentzi adina jartzeko, eta hauen kontrol zorrotz bat egitea, behar denean hustu eta ezarrita dauden kontenedoreetara eramanez.

Partzelaren inguruan neurriak jartzeko, tokiz kanpo botatuko hondakinak basora ez direla iristen bermatzeko (adibidez itxidura bat).

Honek guztiak kontzientzia gehiago hartzeko balio behar du, penagarria baita Larraungo hainbat txokotan ezkututzen eta pilatzen den zaborra.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



“Konposta egiten hastea, ohitura aldatzea baino ez da”

2011an Mendialdeko Mankomunitateak eskualdeko hondakinen kudeaketaren azterketa bat egin eta konpostaren aldeko apustua egin zuen. Geroztik zenbait herritan auzo konpostaren bitartez nahiz konpostagailu indibidualen bitartez herritarrak kontzientziaztea lortu dute, baina oraindik bide luzea dute egiteke. Mendialdea Mankomunitateko Joseba Sanchez teknikariarekin eta Lekunberriko Udaleko zinegotziak diren Juan Mari Irastorza eta Javier Lopezekin izan gara.

Nafarroako Gobernuak 2010ean hondakinen kudeaketa plana onartu zuen eta bertan besteak beste, mankomunitate guztiek hondakin organikoen azterketa estrategiko bat martxan jartzeko betebeharra biltzen zen. Mendialdea Mankomunitatea 2010. urtearen erdial-

dean sortu zen eta 2011an egin zuen bere egitasmo estrategikoa, non aukera ezberdinak aztertu zituzten. Mankomunitateko batzarrean egokiena ahal zen guztia bertan konpostatzea zela erabaki zen, eta etorkizunean Mankomunitateak horretarako bere instalazioa izatea.

Hasierako faseak guztiz boluntarioak izan ziren. 2012an kanpaina berezi bat egin zuten eta populazioaren %15ak eman zuen izena. Lekunberriren kasuan %10era ere ez zen iritsi.

Joseba Sanchez teknikaria: *“Egitasmoa onartu aurretik, hondakinen partzue-
goak Nafarroa osoan konpostagailuak
banatu zituen. Ondoren, behin Men-
dialdea Mankomunitateak etxeko kon-
postaren aldeko apustua egin zuenean,
konpostagailuak banatzen hasi zen eta
formazioa eta bisita teknikoak eskain-
tzen, baita auzo konposta egiteko auke-
ra ere herriak eskaera eginez gero”.*

Leitza izan zen auzo konposta egiten hasi zen lehen udalerrria. 2012an hiru gunek jarri zituen eta pixkanaka sistema ezagun egiten joan ahala Areson, Aranon, Goizuetan, Larraungo zenbait herri-
ritan eta Lekunberrin egiten hasi ziren.

2015ean Lekunberrin auzo konposta egiteko bi gunek jarri zituzten, eta atez atez kanpaina bat ere egin zuten erabiltzaileek zituzten arazoak eta zalantzak bideratzeko. Mankomunitatea osatzen duten herritarren %35ak eman zuen izena, baina ondoren emaitzak ez dira aurreikusitakoak izan. Joseba: *“Izen eman arren, askok ez zuten egiten, horregatik ia, beste kanpaina bat egin genuen eta Lekunberrin auzo konposta egiteko hiru gunek jarri dira”.*

Beraz, Lekunberriko Udalak Mendialdea Mankomunitatearekin batera, hondakin organikoen kudeaketarako egitasmo berria jarri du martxan eta gunek berriak egokitu ditu. Auzo konposta egiteko hiru gunek daude, Iturritak, 3 zenbakian (Euskalduna Tabernaren ondoan), Artzanegi kaleko 12. zenbakian (Pilotalekuaren ondoan) eta hirugarren bat Zintzar ka-

leko 16. zenbakian (Hilerri ondoko jolas parkearen ondoan). Bertan, sukaldean egunero baztertzen ditugun hondakin organikoak botatzen dira.

Bestetik, etxeko lorategietan moztu den belarra botatzeko beste hiru gunek jarri dituzte, Artzanegi kaleko 44. zenbakian, poligonora dihoan bide bazterrean; bigarrena herriko baratzen eta tanatorioaren artean eta hirugarrena Kate Txiki, 13. zenbakian (Kirol anitzetarako zelaiaren ondoan). Horietan, belarra baino ezin da bota, ez da adarrak edo bestelako hondakin organikorik bota behar. Eta horiez guztiez gain, kimatutako adarrak eta bestelako kimak botatzeko beste gunek bat egokitu dute Agrozumos eta Simogaberri lantegien artean dagoen bidexkan. Hor bertan biltzen da ere konposta egiteko beharrezkoa den materia egituratzailea.

Joseba Sanchez, Juan Mari Irastorza eta Javier Lopez

“Lekunberrin, herritarren %13ak baino ez du konposta egiten”



Zergatik uste duzue orain arte konpostaketak ez duela aurreikusi bezalako erantzunik izan?

Joseba: “Boluntario egiteko aukera ematen baduzu, gaiarekin kontzientziaturik daudenak baino ez dute parte hartzen eta gainera haserretu egiten dira

gogorik gabe parte hartzen dutenek gainontzekoek egindakoa hondatzen dutelako”. Hori izan da erabiltzaileengandik jaso dugun kexa nagusia. Egia da ere, administrazioaren aldetik, gaizki egitea zaildu behar dugula, jendea ez delako konturatzen ongi egiteak dituen onurez.

Eta orain boluntarioa izan arren, aurki, egiten ez duen horrek edo gaizki egiten duenak ordaindu egin beharko luke.

Neurri zorrotzagoak hartuko dira beraz...

Joseba: Erabakitze dago, baina Nafarroako Gobernuak hondakinen kudeaketarako egitasmo berri onartu du. Europak jada betebeharrekoa agindu du. Hondakin organikoen erdia ongi kudeatu behar dugula dio Europak eta hemen, Mendialdean, organikoaren %20 ere ez gara zuzen kudeatzen ari. Horretarako, 2020ra arteko epea jarri dute. Gainera, urtero pilotutako hondakin kopurua jaisten joatea da helburua eta hemen aldiz, urtero pixka bat gehiago sortzen dugu. Dagoeneko Europa zenbait abisu ematen ari da, eta hala ere leku gutxitan hartu dituzte neurriak, Kataluniako zenbait tokitan, Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait lekutan eta Nafarroako beste hainbatetan, Pontevedran...

Eta Nafarroan neurri zorrotzagoak hartzea da helburua, ezta?

Joseba: Bai. Nafarroan egitasmoa berri-
tu egin zen eta Europak eskatzen duena baino zorrotzagoa da, 2027rako bete beharko duguna. Bilketa selektiboaren

KONPOSTA NOLA EGIN!

Hona hemen konposta egiteko eman beharreko pausoak:

- ➔ - Parte hartzen hasi aurretik eman izena Lekunberriko Udalean (948 50 42 11 edo bulegoak@lekunberri.net) edo Mendialdea Mankomunitatean (948 51 04 44 edo info@mendialdea.eus). Beharrezkoa da izen ematea Mankomunitateak parte-hartzaile kopuruaren kontrola eraman eta zerbitzua behar bezala eskaini dezan. Informazioa eta materiala emango dizute guztiz doan. Etxean konposta egin nahi baduzu, konpostagailua emango dizute eta auzo konpostean parte hartu nahi baduzu, ontzia.
- ➔ - Etxean hondakin organikoa gainontzeko hondakinengandik berezi.
- ➔ - Konpostagailu indibidualaren kasuan, bertan gai organikoa bota, materiala mugitu (hamar segundoz) pixka bat arrotzeko, gainetik gai egituratzailea bota eta itxi. Auzo-konpostagailuen kasuan ez da beharrezkoa materiala mugitzea, horretaz arduratuko da Mankomunitatea eta udal langilea. Bertan, hondakin organikoak bota, gainetik gai egituratzailea eta itxi.
- ➔ - Ongarria dagoenean, bizilagunei deituko zaie, nahi izanez gero euren artean banatzeko. Etxean sortutako ongarria soberan baduzu, inguruko norbaiti eman edo kimaketen gunean utzi.

%65 lortzea da egitasmo horren helburua eta Nafarroan oraindik lan asko dugu egiteke. Egitasmo hori betearazteko lege bat onartzea espero da eta pentsatzen dut neurri zorrotzak ekarriko dituela.

Momentu honetan Lekunberri zenbat pertsona edo familia ari dira parte hartzen?

Joseba: Guk familien arabera egiten dugu neurketa, lehenengo etxebizitzien arabera. Eta izen eman dutenak %27 dira, baina egiten dutenak %13 baino

“Mendialdean,
organikoaren %20 ere ez
gara zuzen kudeatzen ari”

ez direla zenbatetsi dugu. Izen eman duten horiek egingo dutela pentsatzen dugu, baina etxeetara joatean konturatzeko gara askok ez dutela egiten edo edukiontzi berdean pilatzen dena ikusiz ere nabaritzen dugu. Orain dela hila-bete eta erdi jarri ziren auzo konposta egiteko gunek berriak eta Aste Santuaren

ondoren begiratu beharko dugu ea eraginik izan duen.

Zein da Udalaren ikuspuntua?

Juan Mari: Udalak autokritika egin du eta orain dela bi urte, beharbada ez genuen behar adina erraztasun eman, gune berdinean belarra bota eta konposta egiten zen. Jendeari erraztasunak eman behar dizkiogu eta orain gune ezberdinak jarri eta plangintza berria etxetik zabaltzeko dugu jendeari informazioa eskainiz. Baina Udalak egin dezakeena baino askoz gehiago egin genezake norbanakook ahoz ahoko kanpaina eginez. Jendea animatu ahala gune gehiago egokitzen joango gara.

Bada auzo konposta egiteko guneak urrutiegi daudela dionik...

Joseba: Bi irizpide jarrai daitezke, izen eman duen talde horren etxebizitzien inguruan jarri edo parte hartzea sustatzeko interesatzen zaigun inguru batean jarri, bertako jendea izen ematera animatu dadin. Zaborren edukiontziak baino metro batzuk urrutiago egongo da baina ez askoz gehiago. Dena den, herritarrekin biltzen joan beharko gara, guretzat administrazio gisa egokiena den hori, agian egin behar duenarentzat ez delako horrela. Baina konposta egin beharra daukagu eta ez badugu orain egiten hemendik gutxira behartuko gaituzte, hori da zabaltzeko beharreko mezua. Baina bai Udala eta bai Mankomunitatea



Auzo konposta egiteko gunean bertan dago eskuragarri egituratzailea.



hemen gaude edozein zalantza eta arazo bideratu eta ohitura aldaketa horrekin laguntzeko. Gainera, batzuei astebete kostako zaie ohitura hartzea eta beste batzuei bi hilabete, baina behin ohitura hartuta zaila da gaizki egitea.

Etxeko konpostagailu indibidualetan zer bota daiteke?

Joseba: Usteltzen den guztia, baita haragia eta arraina ere. Konpostagailura bota daiteke, prestatutako janaria, janariarekin zikindutako paperezko musuzapiak...

Eta etxean konposta egiten dutenek materia egituratzailea eskuragarri al daukate?

Juan Mari: Gaur egun, konposta egiteko beharrezkoa den materia egituratzaile hori Iruñetik ekartzen du Udalak, eta kimatutako materiala uzteko gunean pilatzen du, gero auzo konposta egiten den guneetara eramaten joateko. Konposta etxeetan egiten dutenek, udalera deitu eta eska dezakete.

Javier: Etorkizunean, asmoa Mankomunitateak bere makina birrintzailea izatea da, herriz herri biltzen diren adarrak eta kimatutako materiala txikitu eta gai egituratzaile propioa sortzeko.

Etxean sortutako ongarriarekin zer egin ez dakienik ere izanen da...

Joseba: Lurrak ederki hartzen du ongarria, ez da baraterik izan beharrik. Bada hori arazoa dela uste duenik, baina jende asko ongarri faltan dago. Beraz, bizilagunari oparitu diezaikegu edo kimaketen gunean utzi eta behar duenak handik har dezala.

“Bilketa selektiboaren %65 lortzea da Nafarroako egitasmoaren helburua”

Juan Mari zuk konposta zeure etxean egiten duzu... Usainik botatzen al du?

Juan Mari: Ez. Kontrol pixka bat eraman behar da, tarteka nahastu. Botatako barazkietatik eltxo batzuk atera direla ikusten baduzu, egituratzaile pixka bat bota eta berehala desagertzen dira. Usainik ez du, hori jendearen artean zabalduko uste faltsu bat da. Sukaldeko edukiontzian hondakin organikoak usteltzen hasten direnean, usaindu egiten dute, baina ez da gauza bera, hor usteldu egiten da eta konpostagailuan aldiz, usteldu baino deskonposatu egiten da horretarako bitartekoak jarri ditugulako.

Auzo konposta egiteko ontziak txiki- giak direla ere entzuten da...

Joseba: Hori nahita eginda dago! Banatzen ditugun ontziak 10 litrokoak dira. 20 litrokoak banatuko bagenu egun gehiagorik edukiko zenuke ontzia ustu gabe eta usaina sortuko luke. Eta aldiz, 7 litrokoa banatuko bagenu txiki-
giak izango litzateke. 10 litroko ontzia bost pertsonako familia batek astean bi aldiz ustutzeko pentsaturik dago edo astean behin asko jota. Baina norbaitek handi-
goa beharko balu eman egingo zaio.

Konpostagailuek arratoiak erakartzen dituenaren ustea ere zabaldua dago...

Joseba: Konpostagailuek ez dute arratoiak erakartzen. Lau urteotan ez dugu

arratoi bakar bat ere ikusi, ezta erreka ondoan dauden konpostagailuetan ere. Konpostaren barruan pilatzen den materiala berotu egiten da, 50 gradutara igotzen da tenperatura, ni ez nintzake horren gainean oinutsik jarriko eta arratoiak ezta ere. Edukiontzien inguruan ikustea erraza da, konpostagailuen kasuan ez.

Hondakin organikoarekin konposta egiten hasten bagara zer bota behar dugu edukiontzi berdera?

Joseba: Zaila da galdera horri erantzutea, plastikoa, kartoia, kristala, latak eta organikoa ez den beste guztia, pixoiha-lak eta halakoak. Baina, organikoa eta beste hondakin horiek behar bezala banatzen baditugu zaila da edukiontzi berdea betetzea.

Inguruko zenbait herritan ia herritarren gehiengo ari da konposta egiten...

Joseba: Bai. Iribasen esaterako, Mankomunitatean gai honekin lanean hasi aurretik jada herritar askok egiten zuen konposta etxean. Batzuek animaliak zituztelako eta beste batzuek etxean egiteko ohitura zutelako. Herrian batzar bat egin genuen eta auzo-konposta egitea erabaki zuten. Bi konpostagailu jarri ziren edukiontzien ondoan eta herritar gehienak ari dira parte hartzen. Errazkinen ere, denek egiten dute ia. Han ez da auzo konposta egiten, norberak bere konpostagailua du. Gutxi batzuk hasi ziren konposta egiten eta ahoz ahokoarekin zabaldu egin zen. Egokiena denek parte hartzea izango litzateke, gainera horrela hondakinak biltzeko kamioiak ez lukeelako horren maiz joan beharko eta hori da helburua.

Apirilaren 4an iritsiko da Korrika eskualdera

Hasi da Korrika, martxoaren 30ean atera zen Otxandiotik eta apirilaren 9an iritsiko da Iruñera. Egun horretan, igandearkin, egun osoan zehar ekitaldi ugari izanen dira. Gure eskualdera apirilaren 3tik 4ko goizaldean iritsiko da. Antolatzaileek aurreikusten dute bostak aldera pasako dela Lekunberritik eta seiak aldera Betelutik. Giroa berotzen joateko, joan den hilean jada zenbait ekitaldi egin zituzten 20. Korrika gurera iristear dela. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek Tipi-Tapa Korrika emanaldia eskaini zuten Lekunberriko kiroldegian. Eta aurten ere Korrikako arroparen desfilea egin zuten Lekunberrin.



Hainbat ekitaldi Emakumearen Egunaren bueltan

Emakumearen Nazioarteko Eguna izan zen joan den martxoaren 8an eta hainbat ekitaldi antolatu ziren egun horren bueltan. Lekunberrin bi elkarretaratze egin zituzten eta Aldatzen herriko garbilekuan elkartu ziren Larraunen urte luzez arropa garbitzen ibili ziren emakume haiek omenduz. Araizko udal langileak ere geldialdi txiki bat egin zuten egun hartan. Bestetik, Lekunberriko Udalak hainbat ekitaldi antolatu zituen eta eskualdeko emakumeak Amsterdamen izan ziren eta aurten ere Mailope eraman zuten. Gure irakurlea den Vega Votellok Mailope Van Gogh museora eraman zuen eta eguzkiloaren lan ezagunarekin atera zion argazkia.



Etxez etxe mozorraturik

Amaitu da inauteri denboraldia. Gaintzakoak izan dira eskualdeko azkenak eta ederki ospatu zituzten. Goizetik hasita herrian barna, etxez etxe ibili ziren puska-biltzan eta iluntzean elkartean afari baten bueltan elkartu ziren. Horra hor Agustin Saralegik jasotako irudiak.




Lagunasesoría S.L.

**Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SAN MIGUEL
gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

German Lasarte
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157



OKM
ABOKATUAK
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555



Eskerrik asko Txapel!

Baraibarko semea zen, hamalau urtez Imotzen bizi izan zena eta azkeneko urteotan Lekunberrin. Miguel Etxarri joan den otsailaren 13an hil zen, 72 urte zituela. Denek "Txapel" goitizenez ezagutzen zuten eta Lekunberrin berarekin harremana zutenek egunero sumatzen dute bere falta. Lekunberriko Eguneko Zentroko langile eta lagunek eskerrak eman nahi dizkiote Txapeli.

Eguneko Zentroan dauden etxebizitzetako batean bizi zen. Silvia Otermin, Lekunberriko Eguneko Zentroko zuzendaria: "Egunero jaisten zen bazkaltzera eta bertakoekin musean eta dominoan jolastera. Beti umore onez zegoen eta inguruokak ere alaitzen zituen. Eguneko Zentroko atetik sartu orduko denekin brometan ibiltzen zen. Izugarri sumatzen dugu hemen bere falta. Guk berari baino gehiago eman zigun berak guri". Adineko jendearekin eta ezinduekin harremantzeko gaitasun handia zuen eta beti zegoen laguntzeko prest, hala gogorazten du ere Kristina Albiasuk: "Askotan izaten nuen etxean bisitan eta lanpeturik ikusten baninduen, nire senarrarekin gelditzen zen eta niri egin beharrekoak egitera joateko esaten zidan".

Eguneko Zentroan mural bat prestatu dute bertakoek idatzitako esaldiekin. Hala dio horietako batek: "Pilota kontuetan beti desadostasunean geunden arren, asko maite zintudan Txapel!".

Izan ere, pilotazale handia zen eta baita Aralar Irratiko kolaboratzaile fina ere. Astelehenero Martin Juanenarekin elkartzen zen irratian. Martin: "Bi urte t'erdiz ibili zen irratian, ez zuen inoiz huts egiten. Ordu erdi batez asteburuak emandakoaren laburpena eta hurrengo partiduen aurreikuspena egiten genuen. Oso pertsona alaia eta eskuzabala zen, beti faboreak egiteko prest".

Txapel, Ladis Galarzaren botilleroa izan zen hiru edo lau urtez. Gaur egun Oinatz Bengoetxea eta Mikel Beroiz zituen pilotari gustukoena. Beroiz bere lagunaren artean defendatzea geroz eta zailagoa bazuen ere, edozeinen aurrean defendatzen omen zuen. Martin: "Nahiko euskara polita zuen eta gainera bere-bereak zituen esaldiak botatzen zituen tarteka. Adibidez, -asteburu hontan biztanik jokatu ez dun jokalarie hau izan da!-. Entzuleak gustura egoten ziren. Orain, Jesus Mari Oreja hasi da bere orde, baina izugarria izan da Txapelak utzitako hutsartea".

Araxes Herri Kirol Taldea Nafarroako Txapelketako finalean izanen da



Betelun, joan den martxoaren 12an jokatu zen aurtengo Nafarroako Herri-kirol Txapelketako bigarren jardunaldia. Bi modalitatetan aritu ziren, sokatiran eta herri-kirol konbinatuetan (loko txak, txingak, zakua, lasterka eta trontza).

Hiru mailatan egin zituzten probak: kimuak (11-12 urte), haurrak (13-14) eta kadeteak (15-16). Guztira 34 taldek parte hartu zuten.

Aurtengoan ere, Araxes taldea bertan izan zen eta haur eta kadete mailan parte hartu zuten. Unai Ijurkorekin entrenatzen dute eta astero egindako lanak bere emaitza izan zuen, batez ere konbinatuen probetan. Haurren mailan irabazi zuten eta kadete mailan berriz, bigarren sailkatu ziren segundo gutxiko aldearekin. Sokatiran, pisuz oso azpitik zeuden eta azken postuan gelditu ziren.

Unai: "Jardunaldia orokorrean oso ongi atera zen. Jende asko bildu zen eta frontoia bete egin zen. Antolakuntzaren aldetik, beste taldeen ordezkarien partetik eta Federazioetik ere zorionak jaso genituen. Baina hori guztia guraso, udal, kirolari eta boluntarioen borondate eta lanari esker izan zen. Mila esker, benetan".

Txapelketari dagokionez, Araxes taldea konbinatuen finalean izanen da apirilaren 2an Etxarri-Aranatzen. Zorte on!!

Jolasean gizakien arteko konfiantza landuz



Bi eta lau urte arteko zazpi haur dabilta bere gurasoetako batekin Contakids ikastaroan parte hartzen. Martxoan hasi ziren eta sei saio eman dituzte guztira. Oskar Estanga da saioak gidatzeaz arduratu dena: "Saioetan kontaktuzko jolasak egiten ditugu, guraso eta haur elkarrekin modu dibertigarri horretan aritzeko. Haurrek nahi dutena egiten dute beti, inoiz ez ditugu behartzen. Gonbidatu bai, eta gurasoak ongi pasatzen eta umeak bezala jolasten ikusita, azkar animatzen dira. Helburua, gizakien arteko konfiantza eta kalitatezko denbora eskaintzea da, jolasa aitzaki".



Araxes ikastetxeko ikasleak Romeori babesa adierazi diote

Aurreko batean Berria egunkariko elkarrizketa bat irakurri zuten Araxes ikastetxeko 4. mailakoek. Ikasle hauek zur eta lur geratu ziren Beti Kozkor taldeko Romeo Blaisse futbol jokariaren elkarrizketarekin. Ez zuten ulertzen nolatan jasan behar izan dituen halako irain arrazista eta egoera latzak. Honen aurrean, ikasleek Romeo animatzeko pankarta bat egitea pentsatu zuten. Beraz, kiroltasuna eta pertsonak gauza guztien gainetik. Aupa Romeo!!



Horra hor Araxesko ikasleek egin zuten pankarta!



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE 

ADI!! TLF BERRIA:
948 51 30 32



panaderia okindegia
GALBURU eco

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Aldezaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

Gure amonak txapeldunak!

Martxoak 8, Nazioarteko Emakume Langileen egunaren harira, Mitxauseneako Inma eskolara etorri zen eta 5. eta 6. mailakoen artean argazki lehiaketa bat proposatu zigun. Argazki lehiaketan, gure amonak izango dira protagonista, gaur egungo egoerara iristeko lan asko egin dutelako eta amonek asko balio dutela adierazi nahi dugulako. Beraz, argazki baten bidez gure amonak omenduko ditugu.

Gure artean hitz egin genuenaren arabera, gure amonen lanbideak gehien bat etxeko lanetan oinarritu izan dira, bai duela urte batzuk eta baita gaur egun ere. Baina,

badira lan egiten duten beste lanbide batzuk; esaterako: taxista, sukaldaria, jostuna, abeltzaina, dendaria, baratza-zaina, nekazaria... Denak ere goraiatzeko modukoak.

Beraz, gora gure amona txapeldunak!

Martxoaren 24tik aurrera, Mitxausenean egongo dira lehiaketako argazkiak ikusgai eta martxoaren 30ean sari banaketa egingo da.

Ibarberriko 5. mailako ikasleak.



Ibarberriko 5. mailako ikasleak.



Mota honetako argazkiak ekarri dituzte ikasleak.



Hausnartu eta eman zure boza ekainaren 18an

1.423 sinadura lortu zituen Mendialdeko Gure Esku Dago elkarteak, aurreikusitako helburua bikoiztu egin zuten eta dagoeneko baieztatu daiteke ekainaren 18an herri galdeketa egingen dutela Leitzaan, Aranon, Goizuetan, Areson, Lekunberrin, Larraunen, Betelun eta Araitzen. Antolakuntza burubelarri dabil lanean. Lekunberri-Larraun eta Araitz-Beteluko lan taldeekin izan gara.

Abenduaren 17an ekin zenioten sinadura bilketari eta bi hilabetetan helburua bikoiztea lortu duzue...

Bai. Abenduaren 17an Lekunberrin egin genuen elkartearen aurkezpena eta egun horretan bertan hasi ginen sinadurak biltzen. Guztira, 1.423 herritarren babesa lortu dugu eta herri askotan behar genuen gutxieneko kopurua bikoiztu egin da. 16 urtetik gorako biztanleen %10aren sinadurak behar genituen Leitzaan eta Lekunberrin eta %15 gainontzeko udalerrietan. Herriz herri egindako kanpainaren ondoren, gure eskualdean, Larraunen 257 lortu ditugu (%30,6), Lekunberrin 254 (%20,5), Araitzen 104 (%22,4) eta Betelun 57 (%20).



Pozteko moduko emaitzak...

Bai, zenbait herritan ez zaigu erraza egin jendearengana iristea, askok ez zutelako ekimena gehiegi ezagutzen, baina egindako lanaren ondoren, lortu dugu orain arte ekimenarekin harremanik izan ez duen jendea, edo gehiegi hurbildu ez den jendea mugiaraztea eta elkartzea. Hori pozgarria da noski! Hala ere, sinaduren bitartez babesa eman duten horiek guztiak eta askoz gehiago ekainaren 18an herri galdeketa mahaira hurbiltzea lortu beharra daukagu eta lan handia dugu oraindik egiteke.

Eta hurrengo pausoa zein izanen da?

Egun horretan erantzun beharreko galdera zehazten gabiltza orain. Zortzi udalerririk elkartu garen arren eta elkarrekin lanean gabiltzan arren, herriz herriko taldetxoekin ari gara dena antolatzen. Ekimen honen oinarrian he-



rritarrak egon behar dutela uste dugu, beraiek dira prozesu guzti honen protagonistak eta ondorioz, beraiek dira ere prozesu honetan emango ditugun pauso bakoitzaren partaideak. Horregatik herriz herriko ekimeneko kideen laguntzaz zenbait herritarrekin elkartzen gabiltza galdera hori zehazteko aukera ezberdinak aztertzen. Gero udalerrri bakoitzean ateratako aukeren artean hartuko da azken erabakia. Asmoa apirilean prozesu hau ixtea da.

Galdera modu batera edo bestera egin herritarrei euren herriaren etorkizuna erabakitzeko aukera emanen zaie...

Bai, eta norberak askatasun osoz emanen du bere erantzuna, gainera bere boza sekretupekoa izanen da. Protokolo zorrotza jarraituko dugu bozketa behar bezala bideratzeko. Orain arte herritarrok ez dugu gure herriaren etorkizunaz demokratikoki erabakitzeko aukerarik izan eta gainera, horretarako eskubiderik ez dugula sinestarazi nahi izan digute. Nafarrok, lehenengo aldiz, bai, historian lehen aldiz, izango dugu gure estatusari buruz erabakitzeko aukera, eta hiru eskualde handi (Sakana eta Bortzirriak dira besteak) izango gara aitzindari, egun berean eginez. Horrek duen balioaz ohartu behar gara. Garrantzitsue-na, hemendik ekainera bitarte norberak bere hausnarketa egitea da.

Larraun eta Lekunberrin zenbat lagun zabiltzate lanean? Zer moduz ari zarete moldatzen?

Ba Larraun-Lekunberriko taldean 7-8 pertsona gabiltza lanean, talde motor bezala. Talde gaztea gara, ilusio eta indarrez betea eta aldi berean oinak lurrean dituen. Ikasturte hasieratik daramagu

lanean. Hala ere, kontutan izan behar da Larraungo ia herri guztietan ere "jostunak" ditugula (hau da, herriko Gure Esku Dagoko arduradunak kartelak jartzeko, abisuak emateko...) eta horretaz gain beste pertsona asko ere prest azaldu zaizkigu laguntzako, bere aletxoak jartzeko; bakoitzak bere esparrutik eta ahal duen neurrian laguntzen du. Lan asko dago egiteko baina taldean oso giro ona daukagu eta horrek izugarri laguntzen du. Datozen asteetan, ilusio hori guztia gainontzeko bizilagunei transmititzea izango da gure helburua.

“Ekainaren 18an herritarrak urbiltzea lortu beharra daukagu”

Eta Araitz eta Betelun?

Gu hamaika lagun inguru gara taldean eta ongi hara galdatzen. Joan den hilean Betelun goiz pasa ederra antolatu genuen eta 70 herritar inguru elkartzea lortu genuen. Goizeko lehen orduan hamar bat lagun atera ziren antolatutako mendi martxara eta frontoian haurren pilota partidak, txikienezako marrazki tailerrak egin genituen eta ondoren argazki herrikoi bat atera genuen. Halako ekitaldiek herritarrak ekimenera hurbildu eta informazioa eskaintzeko aukera ezin hobea dira. Herri asko gara, Araitz eta Betelun, zazpi herri eta Larraun eta Lekunberrin, hamazazpi. Ez da erraza herritar guztiengana iristea, baina sare sozialak, hedabideak, halako ekimenak eta ahoz aho egiten den lana lagungarriak zaizkigu.



Zein e k i - men aurreikusten dituzue datorren asteetarako?

Apirilaren 7an Lekunberriko Batzar aretoan herri galdeketa galdera erabakitzeko eztabaida irekia egingo da. Bilera anitza izatea nahi dugu, ekainak 18an protagonista izango den galdera ahalik eta sektore zabalenarentzat erakargarria izatea nahi baitugu. Mundu guztia ongietorria izango da. Bestalde, Kinto Egunean mural polit bat margotzea da asmoa, bailara osoko gazteekin. Horren ondoren, adin guztietako lagunei zuzendutako ekitaldiak etorriko dira, bailarako eragileak inplikatu nahi ditugu hauen antolaketan, erronkaren dimentsioak eskatzen baitu esparruz esparruko dinamizazioa. Beraz, ekintza kulturalak, kirol-ekintzak... mota guztietakoak izango ditugu. Azken finean, hauek guztiak, eztabaida sanoa pizteko aitzakia izango dira; orain arte "tabu" izan diren gaiak lokatsetik atera eta lasaitasun osoz eta errespetuz hitz egiten hasi behar dugu. Azken helburua, galdeketa egunean denok gure eskubidea gauzatzera joatea izango da, pozik, baiezkoa zein ezezkoa (edo zuria) izan gure aukera.

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak: 948513026 618557889

AMAIURU bar

GTXEGO PIZZAK, KOPA BERGIZAK

948504352

Kantina Rock

948 60 48 21

KANTINA

bokatak, platerak eta...musika.....

LARRAUN

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN s.l.

Lekunberriko industriagunea, 21. nabea 31870 Lekunberri Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefona: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarrapun@gmail.com

“Esku-oheko lana bezain garrantzitsua da ariketa fisikoa ongi preskribiturik egitea”

Bartzelonan egin zituen ikasketak Andoni Ayerdik eta orain fisioterapia zentroa ireki berri du Lekunberrin.

Fisioterapian graduatua zara Andoni...

Bai. Gaztetatik futboleko ibiltzen naiz eta lesio dezente izan ditut, hainbat masajista eta fisioterapeuten eskue-tatik pasa naiz orduan hasi nintzen konturatzen lanbide hori gustatzen zitzaidala. Batxilergoa bukatu eta gero Donostian Kirol Goi Teknikariaren goizkia ikasten hasi nintzen eta bukatutakoan Bartzelonara joan nintzen fisioterapia ikastera.

Azaroan ireki zenuen zure fisioterapia zentro propioa... Zer moduzkoak izaten ari dira lehenengo hilabete hauek?

Ongi, hasiera guztiak gogorak izaten dira, baina gustora eta ilusioz. Hasi berria naizenez, astean hiru goizetan, astelehen, asteazken eta ostegunetan, Ama Betelura jaitsiko naiz bertan daudenekin lan egitera. Eta gainontzeko orduak hemen emango ditut, astearte eta ostiral goizetan eta arratsaldero 16etatik aurrera.

Eta zein zerbitzu eskaintzen dituzu?

Denetarik, edozein min, molestia edo lesio tratatzen ditut eta baita erlaxatzeko masajeak ere. Fisioterapia oso alor zabala da, baina min muskulo-eskeletikoekin egiten dut lan batez ere.

Hasieran publizitate asko egin behar izan duzu inguruan?

Egia esan ez diot hainbesteko publizitate-rik eman. Publizitate onena ahoz ahokoa da. Hasi da inguruko jendea hurbiltzen eta baita futboleko izandako lagunak ere, Iruñetik etortzen da baten bat.

Zein da zailtasunik handiena lanbide horretan?

Batzuetan zuk ikasten duzunetik egunerokoan ikusten duzunera aldaketa handia dago. Esan ohi da fisioterapeuta pazientearen espezialista bilakatu behar dela, baina bere espezialista baino berak duen patologiarekin espezialista bilakatu behar zara. Hori da zailena.

Liburuek gauza bat esaten dute, baina ondoren, errealitatean etortzen zaizun pertsonen artean badira liburuak dioena jarraitzen dutenak, baina beste askok ez dituzte ezaugarri horiek betetzen.

Pertsonaren arabera patologia bera ez da berdina ematen...

Hori da! Eta zailena hori da, pertsona pertsonako diagnostiko hori egitea.

Beti Kozkor Futbol Klubeko fisioterapeuta ere bazara...

Bai jokalaria eta orain klubeko fisioterapeuta ere banaiz, hala ere, oraindik ez gara martxan jarri. Asmoa klubeko talde guztiei zerbitzua eskaintzea da lesionatuta dauden jokalariei erraztasunak emateko.

Pilotaren munduan ere baduzu ezagutza...

Gradu amaierako lana pilotarietara eskuetan izaten dituzten miñari buruzko lana egin nuen, ‘Mal de manos’ deiturikoa zehazki. Hortaz aparte Larraun pilota elkartereko pilotarietara ere eskaintza berezia egiten diet.

Zein min mota izan dira orain arte gehien tratatu dituzunak?

Bizkarreko minak, min muskular batek sortutako buruko minak, eta baita belauneko lesioak ere, adibidez meniskoaren kirurgia izan ondoren belauna minduta gelditu zaienak. Estresak sortutako minak ere izaten dira, lanean postura berean denbora asko egoteak sortutakoak edo baita errepikapeneko mugimenduek sortutakoak ere.

Batzuetan sesio gutxi batzuekin aski izan da, baina euren kontutik lantzeko ariketak ere garrantzitsuak izan dira...

Nik uste fisioterapia pixkanaka-



pixkanaka aldatzen ari dela. Batzuek pentsatzen dute, sei hilabeteko min batekin edo urteetako min batekin etorrira hemen etzan eta ordu bateko sesioarekin mina joan egingo zaiela eta hori ezinezkoa da. Jendea kontzientziatu egin behar duzu, ulertarazi bere mina dela, bere gorputza dela, eta nik ariketa erakusten dizkiet euren aldetik landu eta hobetzen joateko. Garai batean, esku-oheko lanerako mugatzen zen fisioterapeutaren lana, eta egun esku-oheko lana garrantzitsua da, baina etxean edo gimnasioan ariketa fisikoa ongi preskribaturik egi- tea ere oso garrantzitsua da.

Aparatuak ere badituzu... zertarako erabiltzen dituzu?

Bai, ez zaizkit makinak gehiegi gustatzen baina erabiltzen ditut. Horietako bat *Tecarterapia* izeneko teknika bat da, agente eletrofisiko bat erabiltzen da hau da, radio-frekuentzia bidez metabolismoa azeleratu egiten du bero efektua sortuz. Pazienteak beroa nabaritzen du eta hori erabiltzen da giharrak erlaxatzeko eta horrela fisioterapiak ez du horren intentsitate altuan lan egin beharrik. Hori zuntz hausturen kasuetarako eta beste hainbatetarako erabiltzen da. Eta erabiltzen dudan beste makina *Game ready* da.

Eta hori zertarako da?

Hori lesio agudoentzako erabiltzen da, zainbihurtu bat duzunean edo esaterako meniskoaren operazioaren ondoren egunetan ingurua haziturik duzunean inflamazioa jaisten laguntzen du. Konpresio sare bat jartzen da eta hoztu egiten du. Makina hori Barcelona futbol klubean praktikak egiten nengoela ikusi nuen lehen aldiz. Gainera oso ezagun egin zen. Guk han as-



kotan erabiltzen genuen makina hori eta Messi lesionatu zenean, klubari eskatu zion ea makina hura bere etxera eraman zezakeen eta *Twitter*era makinaren argazki bat bidali zuen. Makina horren salmentak bikoiztu egin ziren eta prezioa ere izugarri igo zen. Niri ere asko gustatzen zitzaidan eta noizbait nire zentroa irekitzen banuen makina hori erosiko nuela esaten nion neure buruari.

Oraindik Bartzelonara tarteka joaten zara...

Bai, espezialitate bat ikasten nabil Bartzelonan, "Dolor y disfunción miofacial" izeneko ikasketak egiten nabil. Jostoratzen teknikak, akupunturaren eta puntzioaren teknika ezberdinak ikasten nabil. Batzuetan gertatzen da

adibidez, ukondoan mina izatea eta min hori ukondoan bertan ez egotea. Gertatu daiteke beste puntu batzuetan dauden kontraktuek sortzea min hori eta halako kasuak identifikatzen ere irakasten digute. Lanbide honetan, beti eguneraturik egotea ezinbestekoa da. Urte batetik bestera ere ikerlan berriak eta teknika berriak kalera- tzen dira, zerbitzu gehiago eskaintzeko aukera ematen dizutenak. Horregatik egunean egoteak zuri, fisioterapeuta gisa emaitza onak ziurtatzea ahalbi- detzen dizu.

FITXA

Andoni Ayerdi Fisioterapia
Iturritak kalea, 7 – Lekunberri
609 536 002 / 948 604 789
andoniaofisioterapia@gmail.com

TAXILON
Lontxo Otamendi Artola
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Aritz

SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA ARLOETAKO HORNIGAIK BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA
URZUBI S.A.
Tel. 948 50 42 41 Lekunberri
Fax 948 60 45 20 urzubi@hotmail.com

GARAJAZ
Zure behar eta ordutegira moldatuko gara
ETORRI ETA INFORMAZIOA ZAITEZU!
Mate erdi eta goi zikloetarako prestaketa
Fisika Inglesa 948 504 450
lengua kimika 648253523
buskera marrazketa teknikoak
unibertsitate mailako ikasgaiak



Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak
Mailope aldizkariaren bitartez!

KuxKuxean



Ione Iriarte Olabarria
Martxoak 30, 12 urte.
*Zorionak politte!
Gure etxeko ttikiena jada
neskatxa egin zaigula!
Muxu asko zure famili
guztiaren partez!*



Iraide Aldaregia Balda
Martxoaren 28an 3 urte.
*Zorionak familia guztiaren
partez politte!*

Maren Elordi Ilarregi
Apirilaren 10ean, 2 urte.
*Zorionak gure etxeko
bihurritxoari!!
Ongi pasa potxola. Jarraitu
beti bezain polita eta alai.
Muxu handi bat, familia guz-
tiaren partez.*



Martin Elordi Tolosa
Apirilak, 29.
*Zorionak, Jokin!!
Zorionak aittona!! Urte askotarako!
Egun ona pasa zure urtebetetze egunean.
Jarraitu beti bezala, bizkor eta alaisu.
Narrea eta Maren.*



Egoitz Oreja Altuna
Apirilaren 5ean, 8 urte.
*Zorionak pottoko! Segi beti
bezain bizkor ta maitakor!
Aupa txapeldun!! Muxu
handi bat Aita, Ama, Eneko,
Itxaso eta etxeko guztien
partez!*

Alaitz Olano
Apirilak 25.
*Urteaskotan Alaitzxo!
Egun ona pasa merezi dezu ta :)*



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatz iezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 **696 658 288**
LEKUNBERRI

 **SUAKONTROL**
LEKUNBERRI
Suaren kontrako plakak
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

IORTIA CLINICA DENTAL HORTZ ELIZKETA
Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Aitsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

apirila

2

Jaioberrientzako kakorratzez egindako olagarro solidarioen tailerra Beteluko Zigari elkartearen.

3-4

Goizaldean AEKren aldeko Korrika lasterketa pasako da eskualdetik. Bostak aldera iritsiko da Lekunberrira eta seiak aldera Betelura.

9

Dr Maha's Miracle Tonic taldearen kontzertua Kantinan, 19:30ean.

14

Lekunberriko abesbatzaren kontzertua, arratsaldeko 20:00etan, Lekunberriko Parrokian.

19

Jaioberrientzako kakorratzez egindako olagarro solidarioen tailerra Beteluko Zigari elkartearen.

30

Bertso-afaria Lekunberriko Kattagorri elkartearen Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendiluzerekin. Sarrerak dagoeneko salgai daude, 20 eurotan, Ainhoa tabernan, Elosta tabernan eta Mitxausenea Kultur Etxean.

maiatza

4

"Beti oporretan" liburuari buruzko literatur soziasaldia Harkaitz Cano idazlearekin. Hitzordua arratsaldeko 18:00etan, Mitxausenean.

JULIO SOTO



XABIER MAIA



ENEKO FERNANDEZ



ENEKO LAZKOZ



AIMAR KARRIKA



ANDER FUENTES "ITTURRI"



XABIER TERREROS



JULEN ZELAIETA



43. NAFARROAKO

BERTSOLARI TXAPELKETAKO FINALA

Apirilak 8, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian.

Arratsaldeko 17:00tan hasiko da saioa (16:00etan irekiko dira ateak).

Finalean arituko diren bertsolariak: Julio Soto, Xabi Maia, Eneko Fernandez, Eneko Lazkoz, Aimar Karrika, Ander Fuentes 'Itturri', Xabier Terreros eta Julen Zelaieta.

Sarrerak salgai:

www.bertsosarrerak.eus atarian.

Karriki denda (Iruñea), Fantxike denda (Elizondo), Okindegia (Lesaka), Maimur liburudenda (Leitza), Xapatero taberna (Etxarri Aranatz) eta Katxetas taberna (Lizarran). Saioaren egunean bertan, gainera, zabalik izango dira Anaitasunako leihatilak, 11:00etatik aurrera.

Finala bukatutakoan, afaria izango da Iruñeko Arrano Elkartearen (sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian).

agenda

merkatu txikia

SALGAI

- Etxea salgai, Errazkinen 390 metro karratuko etxea, hiru bizitza egiteko modukoa. Harremanetarako: 948 504 343 / 605 712 750

- Volkswagen California Coach T4 salgai. 2.5Tdi 5 zilindroak 102cv. Nazionala. 340.000Km. Oso ongi zainduta, beti garagen. Extra askoekin (Bizikletak eramateko euskarria, toldoa, aurreratze sistema, berogailu estatikoa, bihurgailua...) Argazki eta informazio gehiago jarri zaitez harremanetan: 630 041 480.

ALOKAIRUAK

- Etxebizitza bila!! Alokatzeko pisu edo etxe baten bila gabilta Atallu, Arribe edo Betelun. Harremanetarako: 663 764 056 (Venus).

- Bajera bat alokatzen da Betelun. Harremanetarako: 690 006 283 (Mila).

BESTERIK

- Pianoa jotzen hasi nahi baduzu, nire etxean, Lekunberri, klaseak eskaintzen ditut. Anima zaitez eta deitu 636 390 356 telefono zenbakira. (Luci).


CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
 ZURGINTZA OROKORRA
 INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
 Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
 Aralar kalea, 41
 Lekunberri

OGI BERRI
 OKIN ARTISAUAK 948604884

**AURRERA
 TABERNA
 ARALAR, 15**
948 60 47 24

**TAXI
 SOROA**
609 168 217
 Bederatzi plaza



**E-18, GUREA DA ESKUBIDEA,
GUREA ETORKIZUNA!**